

**GENIO Y LENGUA, euskal arima,
ETA EUSKALDUNAK POEMA**

Joxemari Aranalde

Andra-gizonok, agur: Bilbo haundiari eta Bizkaia osoari zor diodan begirunez hasten naiz agur horrekin. Gustatu ere, berriz, asko egiten zait. Andrazkoaren lehentasuna gustagarri da beti. Eta egungo giroari dagokionez, berriz, ez dago zer esanik. Emakumearen mendea izan dela esan du norbaitek amaitzeaz dagoen hau. Nik, etorkizunekoa, halakoa izango dela esango nuke. Dena dela ira gana eta daitekeena daitekeela etorkizuna, nik gustora egiten dudala “andra-gizonok” agurra. Eta gainera, tokatu egiten zela gaur horrela egitea.

Egilea

Serio-serio hasten dut nire berbaldi edo hitzaldi edo solasaldi hau, *Genio y lenguaren* egilea ere hala baitator. Serio, eta benetakotasun guztizkoz dator bihankako hau.

Eta nor dugun bera? Ez dakigu. Ez dago izen-deiturarik. Sasi-izen baten pean mozturoririk dator, eta nor den ez baina, zer den esaten digu bakarrik.

Hona: “IBAREk, abertzale ezezagunak, euskeraren egoerak larriturik dagoenak, hitza eskatzen du herriko plazan, bere ahotsa entzunerazteko”. Ez omen da izanen kalitatekoa haren hitza, baina “bai zina eta ordain bilaketarik gabe esana, eta komeniko omen entzutea, akaso”.

Horrelakoxe jendetasunez dator dena delako bi hankako hau. Ez dio inori hitzik kentzen. Txanda eskatzen du bakarrik. Eta ez du eskatzen bera izendun delako. Abertzale kezkatu bat izatea du bere titulu bakarra.

Bestalde. “Pizkundearen ontzian edozein bat besterik ez da bera, dehadar bat egitera datorrena denei, pilotu eta mariñel, nondik jo esateko, eta gero, beste guztiekin batera, boga-boga eginez jarraitzeko”.

Deiadarra bai, dio berak, “izan daiteke garraisi baten antzekoa, larritasun gehiegitzoz bezala egina”. Ez omen, ordea, harritzekoa hori. Izan ere, bueltarik gabeko ondamendi baten aurean, nola hartu neurria esanari eta ohiko moldeetan egin berba? Sendimenduek gainez dagitenean, zein da gauza hitzak beren arauetan errendiarazteko? Eta “zenbat eta garratzagoa mina, orduan eta zakarragoa garraisia”, dio gure Ibar-ek.

Zeini ez dio gogorarazten azken esaldi horrek harako Xalbadorren “Nigarra begian” kantaldi hura, hemen Ibar-ek darabilen gai berarekin ondua? Artzaina ere, behar bezala mintzatu ez balitz bezala, “barkamendu” eske hasten zaio entzuleari. Hona:

“O, entzule maite, otoi barkamendu,
ez badut bozkarioz kantaldi hau ondu!
Jostetako gogoa dautate ekendu,
Aunitz Maite duenak aunitz sofritzen du”. (“O.M.”, 225)

Eta jakina, “zenbat eta garratzagoa mina, orduan eta zakarragoa garraisia”. Artzainari eta gure euskaltzale ezezagunari sentimendu bertsuek sortarazten dizkie euskararen goerak.

Eta herriko plazara hitz-eske datorren gure abertzalea ere, artzaina bezalaxe, jakinaren gainean da “delikatua” duela suieta. Alde batean zabarrak eta euskarari eskerrik ematen ez diotenak daude, eta ia-ia kaltegarri ere badela uste dutenak gure hizkuntza xahar hau, munduan luzitzeko. Hauek, arazoa aitatu hutsarekin, muturra jarriko diotela badaki. Bestaldean, berriz, nolahalako zaletasuna erakusten dutenak eta euskararekin pikardiak egiten ari direnak dauzka. Hauek ere min ditzake beren hutsak nabarmentzean. Beraz, bi aldeetatik sor lekiokela sua badaki. Ez dator, beraz, txoro-txoroan herriko plaza-
ra, luzimendu eta txalo bila bezala. Ongi badaki non sartzen den.

Hala ere, eragozpenak eragozpen eta nozitu beharrak nozitu behar, “garbi hitzegitearen beharra” hotsegiten du, hori omen da-eta “salus populi”, “herriaren osasuna”, nahiz eta norberak nozitu behar izan bere gandorrean. Egia-
ren saria bakarrik nahi du beretzat. Hau da, askatasuna. Ebanjelioaren hura du bere lema: “Egiak egingo zaituzte aske”.

Ikus, bada, nolako zintasunez eta nolako asmoz datorren bere moztorrean gorderik gure tolosar fina. Bai, Ibar, jaun bat dugu eta Gipuzkoako Tolosako semea, fraile eskolapioa eta apaiza, Justo Mari Mokoroa eta Mujika izen-deituraz. Tolosakoa izanda, abizen ospetsuagorik nekez izan zezakeen gure Ibar jaunak.

Euskaltzale zina eta fina izana dugu bere bizitzan Justo Mari Mokoroa jauna. Eta besteak beste, hor dago lekuko bere *ORTIK ETA EMENDIK* obra itzela, gaitza, bere bizitzan zehar bildutako esamoldeen bilduma ikaragarria. Larogeita hamar milatik gora baditu, ni oso ahaztua ez banago. Bada zerbait.

Eta guk eskuartean dugun *GENIO Y LENGUA* hau ere harena da, guztiok dakizuten bezala. Ikusia dugu nolako asmoz datorkigun egilea, eta ikus dezagun orain zer dakarkigun.

Gariarekin aurrez-aurre

Esan dugun bezala –eta zuentzat ez zegoen esan beharrik ere–, euskararen egoera du gai Ibar jaunak “Genio y lengua” liburuan. Ikus nola plantatzen den gaiaren aurrean. Baieztapen bikoitz honetatik hasten da: “Euskararen erabilera gero eta murriztagoa. Literaturgintzaren beherakada”. Hori da Ibar jaunak 1.935ean ikusten duen egoera. Gero eta gutxiago hitzegiten dela eta gero eta gutxiago idazten ere.

Hori aitortu eta gero, ohar honekin dator: “Bi gertakizun mingarri horiek, Hego-Euskalerriri dagokionez dira egin guztizkoak”. Beraz, bestela ere bereziak dauden Iparra eta Hegoa, euskara kontuan ere berezita ikusten ditu gure Ibar Jaunak. Eta nola bereziak gainera! Gero ageriko.

Gero eta gutxiago hitzegin, gero eta gutxiago idatzi. Horra gertakizun bikoitza. Eta bi gauza horiek elkarri lotuak egon, berriz, Ibar-en esanetan. Eta nola lotuak! Entzun gure tolosarrarena: “bizi nahi duen hizkuntza bat, beste hizkuntzen pareko literaturarik gabe, galdua da nahitaez”.

Jendeak hitzegin dezan, berriz, ez omen da aski esatea, eta eskatzea, eta agintzea. Ikusia omen dago hori. Hor omen dabil herria mitinetatik mitinetara, eta neurri batean erakusten omen du interesa hizkuntzarentzat; baina erabilera gero eta urriagoa omen da. Metodo horiek ez omen dute balio.

Benetan “euskalduntzea”, “herritzea” omen da, “heziketarazo berezi bat” omen, geroago luze eta zabal adieraziko zaigunez. Pertsonaren barnean eske bat sortarazi behar da Ibar-en iritiz, euskararen erabilera segurtatuko bada.

Idatziari dagokionez, berriz, ez dago konforme Aitzol jaunarekin. Beste tolosar honek, noski, zera omen dio: “irakurle-eskasia omen dela literaturaren eskasiaren kausa eta euskal publikoaren hoztasun glaziarra”. Egia omen da, bai, Aitzolen esanetan, zenbait idazlek ere baduela errua irakurlearen atzera egite horretan, “euskara sujetibista eta norberaren modurakoegia” erabiltzeagatik. Gainera, Aitzolek dioenez berriz ere, “gure literaturaren zati haundi bat artifizialegia omen da... berezkotasun gutxikoa, bizitasunik eta guritasunik gabea”.

Azken honetatik hasi behar zuela esaten dio Ibar jaunak bere herrikideari. Literaturaren akatsetatik hasi behar zuela, horren ondorio delako publikoaren hoztasuna eta irakurlearen urritasuna, eta ez urritasun hau literaturaren eskasiaren kausa.

Eta akats horiek salatu ondoren, galdera bikoitz honekin uzten gaitu: ikusia ikusita, ez ote daiteke esan, edo baliapide eskasak erabili ditugula, edo ez dugula jo bide zuzenetik?

Eta arazoaren planteamendu hau, ohar garrantzitsu batekin bukatzen du 16-17. orrialdeetan: “Ez omen duela, alegia, naziotasun baten izenean –nahiz hori bidezkoa izan– defendatzen euskara salbatu beharra, zibilizazio bikain baten izenean baizik, euskara baita zibilizazio horren hodi, eta eragile, egiazko balioen gailur eta jasotasun baten ikur den zibilizazio bat”. Hona beraren hitzak: “(El euskara es) vehículo e instrumento de una “civilización” excelsa; cúspide de genuinos valores; signo de elevación”.

Balio horiei eutsi beharrez defendatzen du gure Ibar jaunak euskara, eta “euskal arima desitxura eta degenera ez dadin”. Horra Ibar jaunaren pentsamendua.

Hizkuntzaren balioa

Esan digu zergatik eta zertarako defendatzen duen euskara gure idazleak. Berriro esango digu hurren kapituluan, 23. orrialdean, “patriota-moralistari –horrela definitzen du bere burua– ez zaizkiola interesatzen euskal herriaren ezaugarriak, euskaldunak direlako. Apartekoak eta eredugarriak direlako interesatzen zaizkiola, eta horiek ordezkatzera datozenen aldean askoz goragokoa direlako, eta edozein aldaketarekin galduan aterako gainatekeela ikusten duela”.

Euskal jeinuak edo arimak sortu duen zibilizazio hori horrelako dohainez josia ikusten du, eta orain jakinarazi nahi digu, hizkuntzak zer harreman duen balio paregabe horiekin, edo euskal jeinuarekin.

Zientifikoki, edo zehaztasunez hartuta, “ez omen dira gauza bera hizkuntza eta ‘herri baten arima’”. Beraz, beroarena kendu beharra omen legoke bi gauza horiek berdin egiten dituenari; baina ez omen gehiegikeria handia biak berdin egite hori.

Izan ere, linguistikaren esanetan eta Saussure jaunaren hitzetan, “jeinu kolektiboaren fruitua” omen da hizkuntza; baina hau ere haren eragile da, eta moldatzaile, eta gordailu. Biek egiten dute, beraz, elkar: jeinuak hizkuntza eta hizkuntzak jeinua. (Zuluaga jaunak ere hori zioen atzo).

Zer izen eman diote greziarrek? Idioma, hots, “norberarenena eta norberrezkoena”. Herri-jeinuaren pentsamena eta sentimena hizkuntzak erakusten ditu, eta eraikitzen eta hornitzen. Haatik esan ahal izan omen zuen Sevillako magistral Gurbindo deituak, “hizkuntza kanbiatzen duen herria, degeneratu egiten dela”. Jeinuaren moldatzaile den hizkuntza galtzean, beraz, jeinua bera ere galdu egiten da.

Ondorioz, ez gaitzke harri entzutean hizkuntzaz aldatu den elkarte horri jokabideak ere aldatu egin zaizkiola, eta txarrera aldatu zaizkiola. Oraingoan Iruñeko apezpiku den Lopez Mendoza jaunaren hitz batzuk hartzen ditu, esan duenaren alde, Artura Campion zenak eta A. Intza zenak entzundako hitzak eta *Doneztebeko Euskal Egunak* liburuan jasoak. Haren esanetan, elizbarruti hartako zenbait lekutako hoztasuna elizako gauzetarako eta zabarkeria ohiturretan, euskara galdu zutelako omen ziren. Horra hitzak, euskararentzat inolako atxikimendurik ez zuen jaun batek esanak, euskaraduna ere ez zen jaun batek esanak, Ibar jaunak azpimarratzen duen bezala.

Ikus, beraz, zeinen estuki lotuak dauden euskara eta euskal jeinua. Hizkuntzaren galerek, jeinuaren galera adierazten dute; jeinuaren galera, zibilizazioarena, zibilizazio bikain batena, ordezkatzera datozkeen zibilizazioak baino askoz hobe baten galera. Hori hondamendia!

Nola ez larritu eta kezkatu gure “abertzale moralista” –horrela bataiatu digu berak bere burua– neurri horretako egoera galgarri batekin? Haatik irixiko da ondorio honetara: “Euskaradun garen neurrian gara euskaldun”. Hona beraren hitzak: “tanto tenemos de vascos cuanto tenemos de euskaldunes”.

Euskara galduz gero ez dago euskal jeinurik eta ez dago euskal zibilizatorik. Eta nik erantsiko nioke, Ibar bera gidari dudala, ez dagoela zer salbatu ere “abertzale-moralista” batentzat. Baina Ibar jaunak salbatu nahi du zibilizazio hori, eta logika horren barnean bidezkoa den galdera hau egiten du: “Zer egin euskarari bizirik eusteko?”

Bada arazorik eta ozporik

Mila modutako eragozpenak dauka gure hizkuntzak eta beraren iturburu den “euskal-arimak”, edo Orixek esango lukeen bezala, gure “erritasunak”.

Itsua berak ikus dezakeen zerbaitetatik hasten da gure Ibar jauna. Euskarari mugak hersten ari zaizkio. Batez ere Araba eta Nafarroa behatzen ditu gure tolosar honek. Ordutsu arte euskaldun izandako zenbait herri, gututz erdaldunduak daude. Sailak, beraz, gero eta urriagoak gure hizkuntzak.

Hala ere ez da hori okerrean gure tolosararentzat. Bada gaitz txarrogorik. Zeinek ez du ikusten, esate baterako, guraso eta seme-alaben artean dagoen aldea euskararen erabileran? Zenbat soildu den hizkuntza batzuetatik besteetara! Hiztegian alde handia dago, eta espresabideetan askoz handiagoa.

Hemen, “Genio y lengua” honetan, ageri da idatzia lehenengo aldiz, euskal hiztunon “itzultzaile” izaera hori. Horrek erakusten omen du ederki, zein den gure lehenengo hizkuntza eta zein bigarrena. Horrek duen arriskuarekin,

noski! Laister galduko omen da horrelakoaren ezpainenatik, bortxaz bezala ateratzen zaion hizketa hori. Gogorra da Ibarrek ateratzen duen ondorioa, eta kezagarria guztiz.

Eta industriak sortarazi duen arazoa ere hor dago. Batetik herri txiki euskaldunenetatik hiztunak lapurtzen eta erdal giroan sarrarazten, eta bestetik hiztun erdaldunak ekartzen hona.

Bestalde, eskolan eta unibertsitatean eta komunikabidetan lekurik ez euskararentzat. Hor dago hori ere. Ez nolana hiko arazoa!

Hala ere, etsairik haundiena, "kultura" edo "zibilizazio" arrotza da ibarrentzat. Gainera, "kultura arrotz" hori "aurrerapenaren berrikuntzekin" baitator. Eta horretan bai ez dagoela erdibiderik: edo hartzen ditu eta euskaldunurik erabiltzen aurrerapenaren tresnak gure herriak, edo beroriek jango digute gure naziotasunaren esentzia, eguzkiak behelainoa bezala.

Eta arrotzasunaren edo arrozkeriaren arrisku horretan bada elementu bat bortizki salatzen duena behin eta berriz, eta berriz. Nik, hitz bakar batez, dibertsioa esango dut; eta hark, batez ere, bi hitz hauekin adierazten du: "baile y canto exótico", dantza eta kanta arrotzak. "Mota kosmopolitak" deitzen ditu beste nonbait. Entzun gure Ibar jaunaren erretolika: (bere horretan irakurriko ditut, besteak beste, iparretarrok, guk zuena (edo nik zuena) ez bezala, ederki ezagutzen baituzue gure erdara) "son éstos los dos disolventes más energicos y temibles de la nacionalidad vasca; el uno como elemento de degradación, el otro como agente de deseducación" (57 or.). Eta dantza degradatzaile hori plazan egiten baita, hala dio: "de lo que no hay noticia en nuestra historia es de que la dignidad "social" se hubiera jamás degradado hasta el extremo de otorgar al vicio derechos ciudadanos, tolerándolo en la plaza pública, con disfraces ni sin ellos" (58 or.). Oraingoan musikarekin sartzen da. Aditzen ditu epe-lak. Entzun: "Avance consiguiente (dantzarekin datorrenak, alegia) de la música de importación, sensual y arrabalera, embrutecedora y vil" (60 or.). Eta guzti horrekin batera, "El exhibicionismo femenino, que la complicidad del otro sexo amenaza convertir en plaga social; libertad irrefrenada e incontrolada de las promiscuidades juveniles; "flirt", pasatiempo..." (159 or.). Buka dezadan beste parrafo eder honekin: "Vascos cristianos que proclaman no querer ser otra cosa más que tales..., pero que hollando el evangelio y la vasquía, reservan la "danza" (azpimarratua) para el espectáculo, la ceremonia y el rito, y adoptan el baile (azpimarratua) para el uso y la expansión" (86 or.).

Horiek dira, horiek, esanak eta esateko manierak! Ezagutzen genituen guk, baina ahaztuxeak neuzkan nik. Ahazteko hobeak ez al dirudite?

Badu, beraz, entzule, gure "euskal zibilizaio" bikainak eta gure hizkuntzak arazorik eta erasorik.

Oker haundiak

Genio y lengua liburuan salaketa asko da. Ez dezagun ahaztu, herriko plazara hitz-eske datorrean, ez datorrela txalo bila gure Ibar, ezta ere bere burua erakustera. Egia esatera dator, kosta ala kosta, egia omen dugu-eta askatasuna ekarriko diguna. Horregatik edo, salaketa asko eta haundiak egiten ditu. Entzun berria dugu bat. Orain datorrena da beste bat, eta ez goxoena.

“Literatura gintzaren aldrebeskeriak” izan zezekeen izenburu salaketa honen. Hegoaldearentzat da bakarrik. Iparraldeak ez du horretan ogenik. Aldez-beste, eredugarria da Bidasoaz bestaldekoen ihardun literarioa.

Eta, hain zuzen, bere salaketa, Larramendi eta Axular konparatuz hasten du, eta zabaltzen. Nola da posible, galdetzen du gainera, iparraldekoek ordurako mende osoan literatura gintzan ihardutea eta hegoaldekoek haieri ez segitzea eta haien bide beretik ez joaten? Nolaz ez zuten aintzat hartu Axular eta nolaz nahasi ziren Larramendiren apologetikakerietan?

Ez daki ibar jaunak, euskalkien ezberdintasunarengatik zen eten hori, ala beste zerbaitengatik zen. Hark dakiena da, hegoaldekoek ez zutela iparraldekoak segitzen jakin, eta Ibarren esanetan, ez zutela asmatu literatura gintzan, eta lehenaz gainera, “larriagotu egin zutela euskararen egoera”. Haren hitzekin esanda “ha contribuido a apurar el trance del euskera” literatura gintza horrek.

Hasteko, denbora alperrik galdu omen dugu, inolako interesik ez zuten obrak euskaraz emanez, dela filosofiazkoak, dela literaturazkoak. Gu ere bagarela besteak adina erakusteko eginak bezala omen dirudite. Eta bitartean herria bere gustokorik ezer gabe.

Hurrena berriz, hizkuntza berri moduko bat egin nahi izan omen dugu, herriak berak egina zeukana arbuiatuz eta gutxietsiz bezala. Eta herriak idazlea arbuiatu omen du.

Eta zoioneko, edo zoritxarreko, bereizi beharraren bereizi beharrez, berriz, noelogismo-minak joak gauzka. Larramendi buru dugula. Eta inork uler ez zitzakeen gauzak eskaini dizkiogu herriari.

Larramendiren *Diccionario Trilingüe* omen da, guk euskararekin egin ditugun aldrebeskeria guztien eredugarri edo muestra. Eta Axularren *Guero* da egin behar zenaren eredu, eta iparraldean egin denaren erekusgarri. *Euskalduna* aldizkariari egiten dizkio sekulako goralmenak. Hark omen daki herriaren hizkuntza hitzegiten, eta herriarentzat interesa duten eta balio duten edukinak eskaintzan. Horrela ikusten omen da nolako eragina duen herriarengan eta zertaraino bat eginik dauden aldizkaria eta herria.

Beraz, iparraldekoentzat, hegoaldekoentzat kritika eta egur hainbat laudoriorekin dator Ibar jauna *Genio y lengua* liburuan.

Eta zer egin orain? Nola biziagotu erazi, literaturagintzak berak egoera larriagoan utzi duen euskara? “Soluziora bidean” ematen dio izena sail honi gure tolosar argi eta zorrotzak.

Soluziora bidean

Lehen-lehenik jakin bedi, hil edo biziko auzi bat dela eskuartean daukaguna. “Izan edo ez izan” dela arazoa, Ibarren hitzekin esateko. Eta auzia astuna den bezain sendoa eta serioa eta sakona behar duela izan aterabideak. Heziketa on baten lanaren fruitua izango da “euskal arimaren” berreskuratzea eta euskaltasun egiazko bat finkatzea.

Heziketa horrek erakutsi behar dio euskaldunari, bera ez dela den hori, irudi edo itxura jakin bat duelako, lur jakin batean bizi delako, edo bere abizenak honelakoak edo horrelakoak dituelako. Euskaldun dela jakin behar du, mundu ikuskera eta sentiera berezi batzuk dituelako eta horien araberrako izate modu bat duelako. Heziketa jakin baten fruitua dela bere izateko modua, eta ez beste ezerena. Eta euskaldun izateko modu horren adierazpen bere hizkuntza duela euskaldunak.

Bere izakera hori sendotzean, inolako ahalegin berezirik gabe, “iguin bat” sortuko zaio arrotz zaion guztiarentzat. Iguin bat, lehen salatu dituen dantza eta kanta eta dibertsio klase horientzat guztientzat.

Era berean erakutsi behar zaio, modako topikoak, horixe besterik ez direla: topikoak. Esate baterako, jakin behar du zibilizazioa letren alfabetotik” datorrelako ipuin hori zozokeria bat dela. Ez dagoela munduan eskolarik eta unibertsitatearik eta inolako irakaskuntzarik, Agirreren *Garoa* eleberriko Joanes jauna sortarazteko gai denik. Gizatasun hori, etxearen eta herriaren eta “euskal arimaren” fruitua dela.

Horretaz guztiaz jabetzen denean, sergurtatua da “euskal arimaren” fruitua den pertsona. Orduan ez dago arrotzasunaren arriskurik. Delako euskaldun hori, bere dohainen garapenez egin den norbait baita, eta bere buruari uko egin ez diezaiokeen norbait. Hitz batean, hori euskalduna da, bai izatez eta bai gogo-bihotzez.

Eta bere indentitate-aurkikuntza horretan ikusiko du euskara dela abere nortasunaren ezaugarriarik apartekoena, bai bere buruarekiko, bai besteekiko. Hor agertzen direla euskaldunaren pentsatzeko eta senditzeko manierak, eta hor erakusten duela bere jainua euskaldunak, bere izakera, beste inon ez bezala.

Hala ere, ez da bakarrik hizkuntza gure “herri-krisi”tik ateratzen lagun gaitzakeena. “Euskal arima”ren adierazpide, ez da bakarrik hizkuntza. Hor dago kantua, hor dago dantza, hor dago kirola, eta hor gure beste hainbat ohi-tura.

Horiek ere lagun gaitzakete esnatzen eta geuren buruak euskaldun eza-gutzen, harako Lizarrako aitona hark bezala.

Hamasei urterekin atera omen zen Yerri eskualdeko herri ttipi batetik. Au-rrera Andaluzian ibili omen zen. Gero Ameriketara joan, eta han Argentinan eta Txilen egin omen zituen urteak.

Bere zahartzaroan, herrira etorrita, Lizarran dago Gipuzkoako dantzen emanaldi batean. Ez zituen inoiz ikusiak dantzak; baina zerbait berezia aurki-tu zien, nonbait, eta hala esaten omen zuen: “Yo no sé lo que es, pero siento aquí dentro –bi eskuak petxu gainean jarri– algo misterioso que me dice que eso es mío”.

Aiton hura bezalaxe, beste asko ere esna daitezke euskal gauzen artean, dela dantza, dela kanta,... Haatik esango du gure baliabide guztiak jarri behar ditugula martxan, euskal gauzez inguratua sendi dadin jendea eta haren eus-kaltasuna horni dadin eta “euskal arimaren” argiz argi dadin. Lehendik kons-zienteki euskaldun zirenak, gero eta euskaldunago izango dira, eta inkons-zienteki zirenak, berriz, konszienteki izaten hasiko, esan zaigun aiton hura bezala, eta euskal gauzentzat “esto es mío” esango dute.

Baina, nahiz eta beste gauza asko ere “euskal jeinuaren” fruitu izan, hiz-kuntza lehenetsua duena. Eta hori indartzen egin behar dira eginahalak eta bi. Hor bai sartu behar dutela erakunde guztiek, herriarenek eta pribatuek, eta hor bai xahutu behar ditugula baliabide guztiak. Ez dugu ahaztu behar nola esan digun lehen “euskaradun garen heinean garela euskaldun”. Beraz herria-ren heziketaren fruitua, euskararen berreskurapena behar du izan.

Ez, ordea, nolana egin! Eta honetan bai kupirarik gabe jotzen duela, berreuskalduntze lan horretan nolahala ari den edonor. Lehen nola salatu di-gula literatura arrotz bat egin izanaren errua? Berdin salatzen du, heziketa lan horretan zinezko gaitasunik gabe sar daitekeen guztia.

Eta nor ez da gai heziketa lan horretarako? Guztizko euskal munduan ha-zia eta hezia izan ez dena. Ez du balio unibertsitateko titulua izateak. Ez du balio asko jakiteak. Izan egin behar da euskaldun guztiz, lan hori ongi egin nahi bada.

Hona nolako jarreran nahi dituen lan hori egin nahi dutenak: “Zentruak dio, euskal arima (giro euskalduna) dagoen lekura, ikasle apal gisan hurbildu behar duela, ez maisu gisan; ez arauak ematera, lezioak hartzera baizik; ez bai-tago erdal gaitzak jotako euskaldunik, euskaldun puru batengan zer ikusi eta zer ikasi haundia ez daukanik, zein-eta xumea dirudien euskaldun horrek” (192 C or.).

Beraz, lehenik ikasle izatea eskatzen zaio, gero irakasle izan nahi duen guztiari.

Baina... Baina... ez ote luzcegi joko prestaketa horrek? Beharko litzatekeenaren bila gabiltzan bitartean, ez ote dugu galduko daukaguna? Ez al lebiguke gerta espainolezko esaerak dioen hura, hau da, “lo mejor enemigo de lo bueno”, hots, guztia lortu nahiz guztia galtzea? Hona haren hitzetan agertua zalantza: “¿No serán demasiado lentos e inciertos los métodos de observación que importa a su vez ese estudio preliminar? Y ¿no resulta, entonces, más teórico que práctico el remedio?” (193 or.).

Horra hor duda. Horra zalantza. Horra, soluzio uste zena, oztopo gaindiezin gerta daitekeen beldurra.

Baina ez. Ez dago beldurrik. Ez dago zalantzarik. Bada zerbait denak uxatzen dituen eta “Genio y lengua” liburuan proposatzen den soluzioa berekin dakarrena.

Hona Ibar jaunaren aurkikuntza eta hona korapiloa askatua. Entzun: “Un acontecimiento de estos días, llamado a adquirir celebridad histórica, previene felizmente la objeción, y conforta nuestro patriotismo con el socorro más valioso y oportuno.

En efecto. Por disposición providencial de Dios ha surgido entre nosotros un hombre extraordinario, de temperamento, sensibilidad e inspiración geniales; el cual, de la abundancia de su propia vida, pletóricamente vasca, acaba de *plasmear la figura viva de nuestro genio* en una epopeya folklórica imperecedera. El ha acertado a *reunir y articular en un sistema ideal de armonía y esplendor las piezas orgánicas dispersas de la civilización vasca*.

Su esfuerzo llega, pues, a tiempo para salvar nuestra empresa renacentista, encarrilándola por la ruta verdadera.

Lo decimos con toda la convicción y lealtad que hasta ahora hemos puesto en el diagnóstico de nuestros males; con igual independencia de juicio y el mismo espíritu levantado: *En el poema Euskaldunak de “Orixe” tiene ya el pueblo vasco el instrumento virtual de su regeneración*” (193-94 or.) (Azpimarra guztiak autorearenak dira).

Gure Ibar zehatza, zorrotza, zuzena eta “nada propicio a la exaltación romántica o al mesianismo en este orden de cosas” (195 or.) horrela hitz egiten entzun eta, zein ez du harrimen izugarri batek hartzen? Sarrera honetan darabilen berotasun bera darabil ondorengo 37 orrialdeetan. Eta batere puztuzale ez den tolosar honek hala segiko dio orrialdez orrialde: –Zinezko herri baten izaera ematen zaigu *Euskaldunak* poema. Geurok ikusi ditugula esango genuke horko jendeak, eta ezagutzen ditugula horien ibilerak, iharduna, izateko eta bizitzeko erak, hitz batean, horien izaera. Jendetza hori guztia, erreala da, horrelakoa da, euskalduna da. Euskalduna da kiroletan, euskalduna elizan, euskalduna bere bizitzan eta heriotzean, beti osorik, beti natural, beti bere-berean.

– Zeinen ederra herri horrek sortu duen eta Orixek poeman sartu duen dantzazko eta kantuzko eta bertsozko folklore aberts hori!

– Zeinen eder herri horrek bere lanetan eta jolasetan eta apustuetan dabilzkien ipuin eta ateraldi eta erran eta ohitura guztiak! Hori kultura, hori herri-jakintza, hori aberastasuna kulturala!

– Eta guzti hori estetikarik euskaldunenaz emana. Euskaldun da axalez eta mamiz. Gure herriak sortu duen literaturaren arabera egina da Orixeren poema *Euskaldunak*.

Horregatik. “En él se engolfará, seguramente, con avidez, todo aquel que posea el euskera desde el regazo materno” (227 or.).

Baina ez horiek bakarrik. “Arrazako seme galduak ere beuren xaltxan aurkituko dira hor” (227 or.).

Poema honek “jendeen buru-bihotzak errestan bereganatuko ditu. Izan ere, ez da euskaldun bakar bat ere izango, irakurtzean, haren estetik gustatuko ez zaionik, eta gurea bezalakoa ez den literatura itxurazkorik, gezurrezko-rik, eta zentzugaberik arbuaiatuko ez duenik” (228 or.).

Eta honela bukatzen du: “Batere hartara jarri gabe, gure *Genio y lengua* entsegu txiki hau, poema honen garapen bat (desarrollo) besterik ez da izan” (229 or.).

Beraz guztiz egia da Ibar jaunaren ustetan, Orixek poemako lehenengo bertsoan dioen hura: “Herri baten arnasa mamitu dezadan”. Egia bihurtu da asmoa. Horra hor “mamitua” “euskal arimaren” fruitua den euskal izaera. Horra filma egina. Hor dauka euskaldunak bere ispilua edo miraila, zer den eta zer izan behar duen ikusteko eta ikasteko.

Atzo *Egunkaria* egunkaritik dei egin zidatenean, eta alde-aldera hitz gutxitan zuei askotan –akaso gehiegitan– esan dizuedana esan nienean, hala galdegin zidaten: Zu konforme al zaude Ibar jaunaren aburuarekin?

Euskaldunak –esan nien– ez nekiela gure euskal-heziketarako tresna gustozkoa zenentz. Hor agertzen zen herria, akaso, euskal-erri jakin bat zela, eta ez guztia. Baina bestela, *Euskaldunak* poemaren estetikarekin, eta haren balio literarioekin, eta zinezko herri baten ispilu dela esatearekin, eta bat eta beste, guztiz konforme nengoela Ibar jaunarekin”. Eta hori da nere egia.

Orain, haieri esan ez nien zerbait esan behar dizuet zueri. Har ezazue, nahi baduzue, Euskaltzaindiaren *Euskera* argitalpena, 44. liburukia, eta 613. orrialdean, honako hau irakurriko duzue: “Hitz batean, gizaki batena izatea beste mugarik ez du poema honek ederrean. Hobeia izateko, jainko batena beharko zuen izan”. (*Euskaldunak* poemaren sortaroa eta haren ikuspegi orokorra”) Horra nik diodan miresmena *Euskaldunak* poemari.

Orain dela 46 urte juxtu-juxtu gertatua kontatuko dizuet. Azaroan iritxi zen Orixe Euskal-Herrira. Nik abenduaren 7an ikusi nuen. Garai haietan apaizgaiok geure herrietara etortzen ginen gure sotana eta beka eta guzti, abenduaren 8an seminariorako eske berezi bat egitera. Bezperatik etorri ohi ginen eta nik urte horretako zazpian ikusi eta agurtu nuen lehenengo aldiz Tolosan, haren arrebaren dendan. Arratsalde hura eta hurrengo eguna elkarrekin pasatu genituen gure beserrian. Ameriketatik etorri eta aurrena bisitatu zuen familia, ahaideen artean, gurea izan zen.

Abenduaren 9an seminarioan nintzen berriz. Zai-zai nituen lagunak, zer berri ematen ote nien Orixerenik entzuteko. Begiak itxita begiratu nuke elkartu ginen lekua eta nola jarrita egon ginen ere zehazki esango nuke, haiek entzuten eta ni hitzegiten.

Nire berotasuna eta nire entusiasmoa haundiegiak iruditu zitzaizkien, nonbait, dena egia izateko, eta hala esan zuen norbaitek: "Osaba delako hitzeginen duk hik horrela". Hartan bukatu zen hangoa.

Handik hilabetera leku berean gaude, eta lagun berak. Oraingoan ni entzule naiz. Berriemaile Imanol Aldaregia da, oraintsu Donostiako Elizbarrutiko bikariotza utzi duen jauna. Gabonetan izan du Orixerekin egoteko aukera. Gure idazlea Lazkaoko beneditarretan da, eta hango Abata, Imanolen osaba Mauro Elizando da; eta bere osaba hau bixitatzera joan denean izan du egokiera Orixerekin egoteko.

Zer dio seminariora itzultzean eta gure koadrilari berri ematean? Hauxe hitzez-hitz: "Hik esaten huana baino askoz gehiago duk". Nik esaten nuena baino gehiago zen, beraz, hark ikusi zuena.

Badut lagun bat, betikoa eta guztizkoa, neri Tainkoak nolana ere erantsi izan dizkidana. Aldi batean, nik bi jainko nituela esaten zuen: Jainko jainkoa eta Orixe.

Handik laister hirugarren bat erantsi zidan: Xalbador. Nik batari eta besteari nien mirespenarengatik esaten zuen hori.

Aspaldian ez dit berritu jainko kontu hori; baina halakoren batean esan behar diot "Hi, zer edo zer izango hituan hik jainkotzat erantsi hizkidaan haiek. Mirakuluak egiten hasiak dituk. Hor zebilek Bizkaiko Xabier Amuriza miresgarria "Xalbadorren bapateko mirakulua" kontatzen eta kantatzen. Zer bait izango duk".

Baina orain kantatzen da Xalbadorren mirakulua. Ez 67an xixtuak jo zitzaizkionean. Haiek orduan txapelik ez zioten eman.

Nik 60. urtetik kontatzen dut Xalbadorren mirakulua. Edozeini eta edozeinen aurrean erakutsiko nuke gaur ere, nolako aldrebeskeria egin zen urte hartako txapelketan ere Xalbadorrekin.

Ez, ez nau eraman Orixe mirestera odolak. Odolak eraman ez ninduen bezala Xalbador mirestera duela 40 urte, eta duela 20 Xabier Amuriza mirestera, jaun honen inguruan alde-aldeko zenbait kontu entzuten zen garai haieran. Neroni ere epelak entzuna naiz Azpeitian hemen izendatuko ez dudan jaun batengandik. Bertsolari pranko banuen inguruan; baina defendatzailerik bat bakarrik ere ez.

Inori galdetu beharrik gabe bereganatu ninduen urrepeldarrak lehenengo aldiz ikusi nuenean. Inork esan gabe mirestu nuen Etxanoko semea, lehenengo aldiz txapelktara atera zenean. Eta inori galdetu beharrik gabe igerri nion Orixeri, ezagutu baino lehen, zernolako idazlea genuen.

Aita Villasante zenak Zaitegi jaunari galdegin omen zion Orixe mistikoa al zen. Arrasatearrak ez zion argirik egin. Izatekotan ere, lausotu egin zuen Orixe.

Nik nire 18-19 urterekin antzeman nion Orixe besteak ez bezaleko zer-bait zela. Artean ez neukan irakurria A. Estefaniak *Barne-muinetan* liburuxkaren hitzaurrean dioena. Jesuita honen esanetan, Orixeren garaiko poeta erlijiosoek, gurearekin konparatuta, ez dute erlijioso izatea beste antzik. Orixe bestelakoa da Estefaniaren iritziz. Xalbador bestelakoa den bezala, erlijio bertsoak idatzi izan dituzten beste bertsolariekin konparatuta.

Ez. Ni ez naiz Orixeren miresle eta zale, haren odolekoa naizelako eta azken urtetan etxean jaso nuelako.

Orixe-zale naiz, Lizardi-zale naizen bezalaxe. Ez nuen Lizardi ezagutu. Ni jaio nintzen urte eta hilabete berean hil zen. Orixeren lagun mina zenik ere ez nekien. Orixe ari eskainitako poesien berririk ez nuen. Baina ia-ia kordea glatzeraino liluratu ninduen Lizardik gaztetan. Orixe baino lehen liluratu ere.

Gogoan dut nola, mutil gazte nintzela, Lizardiren berri eman nion ni baino askoz zaharragoa zen euskaltzale eta nere adiskide bati, eta nola loriatu zen hura "Biotz-begietan" obrarekin eta nola ikasi ere egin zituen betiko poesia haietako esaldi batzuk.

Ez, ez. Ez dut aurreiritzirik izan, ezagutzeko aukera izan dudan obrekin. Nire usteen eta gustuen eta jakintza apurraren arabera ihardun dut. Eta harrokeria bada, harrokeria izan bedi, baina beste askok baino lehen aitortu eta eza-gutu ditut haundizat, geoaik halaskotzat euki dituen zenbait fenomeno.

Buka dezadan.

Ados naiz Ibar jaunarekin *Euskaldunak* estetikoki epaitzean. Haundiz bezain harrigarri da ederrez. Euskaldunaren irudi miresgarria margotu digu Orixe bere poeman.

Ibar jaunak uste bezain baliagarri denentz gure nortasuna eraikitzeke, ez dakit.

Zertarako eman duzu, beraz, hitzaldia –diokezu, entzule–, galderei erantzuten ez badakizu? Ez dakit. Eskatu zitzaidalako, akaso.

Ongi esanak gogoan hartu, gaizki esanak barkatu.